

2021.en urtean Nafarroak 1250MW-ko potentzia berriztagarria zuen instalatuta, eta duela 20 urtetik soberako elektrizitatea sortzen duen erkidego bat gara, kontsumitzen duguna baino elektrizitate gehiago ekoizten dugu. Hala eta guztiz ere, azken urte hauetan multinazionalak eta enpresa handiek aurkeztutako megaproiektu eoliko eta fotovoltaikeen uholdea jasan dugu. 130 proiektu baino gehiago tramitatzen ari dira Nafarroan, potentzia hori hirukoiztea ekarriko luketenak, beste leku batzuetara esportatzeko elektrizitatea sortuz.

Betiko enpresa handiek gure herriak inbaditu nahi dituzte, gure laborantza- eta herri-lurak bereganatuz, ingurumenari eta bertan bizi garen pertsonei eragindako kalte atzeraezinak kontutan hartu gabe. Espekulazio-eredu horren aurrean, 2021.en urtearen hasieran eguzki eta haize-poligonoek eragindako herri eta haranetako plataformak elkartu ginen, eta NEETEN sortu genuen, Nafarroako Energia Eraldatzen, trantsizio energetiko planifikatu, demokratiko, deszentralizatu eta bidezko baten alde lan egiten duena, aurrezpenean, eraginkortasun energetikoan eta autokontsumoan oinarrituta.

Administrazioak, lurraldea defendatu beharrean, makroproiektu horien izapidetzea arintzen duten neurriak onartzen ditu, azalpen-epeak laburtuz eta herritarren parte-hartzea zailduz. Iaz, apirilean Klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko foru legea onartu zuen Nafarroako Parlamentuak. Lege horretan urtebeteko epean agindu zen lurzoruen mapa bat egitea, zeinetan baimendu edo debekatuko baitzen energia eolikoa edo fotovoltaikoa instalatzea, zioten bezala, lurraldean berriztagarrien ezarpen ordenatua ziurtatzeko eta natura-balio garrantzitsuenen kontserbazioa bermatzeko. Baina epea bete da eta plangintza oraindik ez da iritsi, bitartean enpresa handiek makroproiektuak aurkezten jarraitzen dute Nafarroa osoan zehar.

Jasaten dugun babesgabatasunaren aurrean, NEETENen argi daukagu, lanean jarraitu behar dugu beste eredu bat bultzatzeko, kontzientziak piztuz, herritarrak mobilizatuz, alegazioak aurkeztuz, bat egin behar dugu eta ozen oihukatu, entzun ahal izateko: Berriztagarriak bai, baina horrela ez.

Euskal Herria Bizirik!

